

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DEBAKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Debako Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta Erakunde Autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Honela, bada, sarrera fiskalen atalean azpimarratu da Deba Musikala eta Eskulangintzarako Irakaskuntza Zentroa Erakunde Autonomoen zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ez dituela horretarako eskumena duen atalak ordenantza fiskalen bitartez onetsi, ez eta Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitara eman ere, ezargaria den araudiak agintzen duen moduan.

Langileen atalean HKEEk azpimarratu du Deba Musikala Erakunde Autonomoak zerbitzuen errentamendua merkataritzako kontratuaren moldepean 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetan, hurrenez hurren, 13 eta 3 irakasle kontratatu zituela; ordea, duten izaeragatik lanbide araubidera meneratuak daude eta horrek Langileen Estatutu Legearen testu bateratuak agindutakoa urratzen du.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du zenbaitetan urratu egin direla administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: arautegian finkatutako epea gainditu duten zenbait zerbitzu-kontraturen luzapena; zerbitzu kontratu bat eta obra kontratu bat aldatu egin ziren, hurrenez hurren, unitate berriak eta obra osagarriak txertatzeagatik, baina ez ziren modu horretara izapidetu, eta kontratazio atalak ere ez zituen onetsi; aldaketek kontratuaren prezioaren % 98 eta % 64



egiten dute eta horrek lehia printzipioak urratzen ditu, kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egin baita.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 359 mila euroan murriztu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio arloetan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez esan behar da, 2006-2008 aldian Udalak inbertsioak finantzatzeko % 58an beste Administrazio Publiko batzuetatik eratorritako diru-laguntzak eta urbanizazio-gai diren guneen jabe pribatuei eskagarriak zaizkien partaidetza kuotak baliatu dituela, 2006an hitzartutako zorpetzeaz gain. Udalaren etorkizuneko inbertsio gaitasuna beste Administrazio Publiko batzuetatik kanpo finantzaketa lortzeko ahaleginari –duen zorpetze maila aintzat hartuta- eta aurrezki garbiaren murrizketari meneratua dago.